

1 GAIA: ENPRESA GURE GIZARTEAN

1.1 Enpresaren funtzioak merkatu ekonomian

1.2 Enpresa kontzeptua

1.3 Enpresaren elementuak

1.3.1 Giza taldea

1.3.2 Baliabide ukigarriak

1.3.3 Baliabide ukiezinak

1.4 Enpresa sistema den aldetik

1.4.1 Azpisistema fisikoa

1.4.2 Azpisistema finantzarioa

1.4.3 Zuzendaritza azpisistema

1.5 Enpresaren helburuak

1.5.1 Jabeen helburuak

1.5.2 Zuzendarien helburuak

1.5.3 Langileen helburuak

1.6 Enpresaren erantzukizun soziala

1.1 ENPRESAREN FUNTZIOAK MERKATU EKONOMIAN

Enpresa merkatu ekonomiaren oinarrizko erakundea da, herrialde gehienek beren ekonomi jarduera garatzeko erabiltzen duen sistema ekonomikoa.

Enpresa, gaur egun, edozein herritarrek zentzu oso zabalean ulertzen duen kontzeptua da, hau da, zein da bere esanahia eta zer funtzio egiten du aipatu sistema ekonomikoan, begi-bistakoa baita da egungo herritarra enpresez inguraturik bizi dela.

Merkatu ekonomia sisteman egiten dituen funtzioak kontuan hartzean, agerian jartzen da enpresak duen garrantzia **ondasun eta zerbitzuak produzitzeko unitate ekonomiko** gisa, hau da, herrialde bateko jarduera produktiboa hartan integratuta dauden enpresa guztien jarduera produktiboen batura da. Horrela, enpresek egiten duten ondasun eta zerbitzuen eskaintzari esker, gizartearen beharrak asebetetzea lortzen da.

Enpresak, gainera, **dimentsio sozial** garrantzizkoa dauka, enplegua sustatu eta aberastasuna sortzen baitu. Enpresan ematen dute gizon-emakumeek beren bizitzako zati handi bat, eta hartatik eskuratzen dituzte bizirauteko beharrezkoak dituzten baliabideak. Mendekotasun harreman horrek, ordea, baditu bere kostu sozialak. Krisialdi ekonomikoa dagoen garaietan, enpresa jarduera murriztu eta enpresetan lanpostuak gutxitzen direnean, langabezia mailak gora egiten du, horrek dakartzan ondorio sozial eta pertsonalekin.

Enpresa, era berean, bizitza modernoan berebiziko garrantzia duen erakundea da, garapen ekonomikoa ahalbidetzen duten **berrikuntza handien sustatzailea** baita. Enpresa, horregatik, sistema ekonomikoaren motorra da.

Gero eta sofistikatuagoak diren bitarteko teknikoak erabiliz eta berrikuntza ugari ezarriz, produktibitatea handitzen du etengabe, eta ondorioz, kontsumitzaileen eskura jartzen diren

produktuen kopurua ugaltu eta haien bizi maila igotzen du. Hala ere, alderdi horrek kostu sozial batzuk ere ekar litzake, ekologikoak eta kultur motakoak.

Enpresa bezalako errealitate askotariko, aldakor eta konplexua azaltzeak zailtasun handiak ditu. Alderdi ekonomiko, juridiko, sozial, psikologiko eta teknologikoak planteatzen dira, besteak beste. Era askotako alderdiak egoteak enpresa baieztatzen du errealitate ekonomiko eta sozial gisa, eta justifikatu egiten du zergatik aztertzen den diziplina sozial (ekonomia, zuzenbidea, soziologia) eta teknologiko ugarietatik.

Gure kasuan, enpresaren ikuspegi ekonomikoa zaigu alderdi interesgarriena. Ekonomia baliabide urrien asignazio eraginkorra aztertzen duen zientzia bada, begi bistakoa da enpresaren kontzeptuan arazo hori bera dagoela, eta zentzu horretan, *eragile ekonomikotzat hartzen da, ondasunak eta zerbitzuak produzitzeko faktoreak efizientzia¹z koordinatzen dituena, helburu jakin batzuk erdiesteko asmoarekin*. Zer da efizientzia, ordea? Lehenik eta behin, eragile ekonomiko batek eskuragarri dituen baliabideetatik ahalik eta etekin handiena ateratzeko duen gaitasuna da edo, produktu edo zerbitzu kopuru jakin bat lortzea ahalik eta faktore edo baliabide kopuru txikienarekin. Enpresak, beraz, aurreikusitako helburuak lortzeko faktore ekonomikoak koordinatzeaz gainera, aipatu faktoreak ahalik eta gutxien kontsumituz egin beharko du. Alegia, efizientiaren printzipio ekonomikoaren arabera jokatu behar du.

1.2 ENPRESA KONTZEPTUA.

Enpresa ezagutzeko modurik zuzenena gure eguneroko bizimoduko adibideetako bat hartzea da. Begiratu bat ematen badiogu gure inguruari, enpresa adierazpen ugariarekin egingo dugu topo. Esate baterako, “Flex” koltxoi baten gainean egiten dugu lo. Gogokoen dugun abestia “Sony” ekipo batean entzuten dugu. “Editex”-ek argitaratutako liburu batetik ikasten dugu. “Prisa”-k argitaratzen duen “El País” egunkaria erosten dugu. Zaragozara joaten gara “Autobuses Conda” enpresaren zerbitzuak erabiliz. Koltxoia, musika ekipoa, eta egunkaria badaude, Zaragozara joaterik badugu, produktu horien atzean enpresak izeneko erakundeak daudelako da, gauza horiek guztiak errealitate bihurtu dituztenak, produzitu egin dituztenak. Gu geu gara produktu horien kontsumitzaileak, eskuratu egiten ditugu haien erabileraz gozatzeko. Bakoitzak ase gabe genuen behar bati erantzuten dio eta eskari bat sortzen du (eroso lo egin, denbora pasa, prestatzeko ikasi, informazioa eskuratu, batetik bestera joan). Enpresek eskari horri erantzun nahi dioten produktuak eskainiz erantzun dute. Enpresak eskaintza egiten du, kontsumitzaileek eskaria, eta eskariaren eta eskaintzaren arteko kontaktua merkatuaren bitartez egiten da.

Baina, “El País” egunkariaren editorea den “Prisa” bezalako enpresa bat sortu bada, seguruenez izango da, pertsona bati edo pertsona multzo bati behin batean egokia iruditu zitzaielako egunkari bat argitaratzea etekinak lortzeko modu gisa. Informazio eskaria sortzen zuen *behar* bat zegoela antzeman zuten eta organizazio bat eratzea erabaki zuten, beren enpresa, egunkariaren argitalpenaren bitartez behar hori ase ahal izateko, *erabilgarritasuna sortuz, beraz²*. Eskariaren kopuruari buruz dituzten aurreikuspenak zuzenak badira eta eskari horren behar edo zaletasunekin bat egingo duen egunkari bat eskaintzeko gauza badira, orduan dena ondo joango da eta etekinak lortzeko adina egunkari salduko dute, hau da, *egunkarien salmentatik*

¹ Efizientzia = Eragingarritasuna = Eficiencia

Eraginkortasuna = Eficacia


² **Erabilgarritasuna** ondasunek giza beharrak asetzeko duten gaitasuna da.

datozen diru-sarrerekin enpresak garatutako jarduerak sortutako kostu guztiak estaltzeko gai izango dira eta gainera, etekin, mozkin bat lortu, hori bai eta azkenean bilatzen dutena, balioa handiago bat sortzea, beraz.

Ondorioz, eta kontuan hartuz orain arte azaldutakoa, esan liteke enpresak garatzen duen eta enpresan egiten den **jarduera orok** ondasun eta zerbitzuen erabilgarritasuna eta balioa **handitzen** laguntzen duela, haiek (**input** moduan) **transformazio prozesu baten mende jarri ondoren** eskuratzen diren ondasunak eta zerbitzuak (**output** moduan) edozein kontsumitzailearen beharrak asetzeko baldintza onenetan baitaude eta balio handiagoa baitute beren transformazioaren ondoren, *transformazio prozesua zentzu zabalenean hartuta*, produkzio jarduerak gainera, marketin eta finantziazio jarduerak barne, jakina.

Ondorioz, esan liteke aurretik adierazi ditugun enpresa adibideak ("Flex", "Sony", "Editex", "Prisa", "Autobuses Conda") era askotakoak direla eta merkatuari oso desberdinak diren ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dizkiotela, baina guztiak enpresak dira, agerian jartzen dutelako enpresak eginiko **oinarrizko funtzioa**, *ekonomiaren ikuspegitik, erabilgarritasuna eta balioa sortzea* dela, hau da, transformazio prozesuaren emaitza gisa, zentzu zabalenean, ondasunak eta zerbitzu batzuk lortzea, haiek eskuratzeko erabili diren faktore ekonomikoek zituztenak baino erabilgarritasun eta balio handiagoarekin.

Balioa Sortzea Enpresan



1.3 ENPRESAREN ELEMENTUAK.

Aurretik ikusi den bezala, enpresak faktore ekonomiko koordinatu multzo bat du helburu bat erdiesteko. Faktore horiek era askotako elementuak dituzte, irizpide desberdinen arabera sailka litezkeenak. Enpresa eratzen duten elementuen sailkapen irizpideetako bat, hain zuzen ere, aurretik erabili dena da, hau da, funtzionalki elkartzea produkzio, marketin, finantza eta zuzendaritza faktore gisa.

Enpresa eratzen duten elementuak taldekatzeko erabiltzen den beste irizpide bat aipatu elementuok enpresak burutzen duen balio sortze prozesuan duten eginkizunean oinarritzen da. Irizpide horren arabera, hiru talde sortzen dira: giza taldea, baliabide ukigarriak eta baliabide ukiezinak.

1.3.1 Giza taldea.

Produkzioaren elementu aktiboa da. Enpresa osatzen duten pertsonak dira. Hiru talde ezartzen dira:

- Langileak edo enplegatutak. Beren lan indarra eta jakintza eskaintzen dizkiote enpresari eta trukean, soldata jasotzen dute, kontratu bidez enpresarekin hitzartua.
- Zuzendaria. Prozesu produktiboaren erantzukizuna eta zuzendaritza bere gain hartzen duen pertsona edo pertsona taldea eta, ondorioz, enpresaren kudeaketa.

-Jabeak. Enpresaburuaren irudiarekin bat egiten ez duten kasuan. Normalean, enpresa handietan. Enpresa kontrolatzeko asmoa duten jabeak izan litezke edo inbertitzaile finantzarioak, besterik gabe.

1.3.2 Baliabide ukigarriak.

Produkzioaren faktore pasiboak dira.

-Fisikoak: Enpresak bere jarduerak egiteko beharrezkoak dituen elementuak dira, hala nola, instalazioak, ekipo ondasunak, makinak edo ordenagailuak, besteak beste, baina bai eta lehengaiak, salgaiak eta produktu bukatuak ere.

-Finantzarioak: Dirua eta maileguak, bonuak, beste enpresekin izan daitezkeen zorrak, akzioak etab. agertzen diren dokumentuak.

1.3.3 Baliabide ukiezinak.

Hemen sartzen dira enpresari giza osagai eta elementu ukigarrien batura indibiduala baino balio eta jarduera ahalmen handiagoa ematen dioten elementu heterogeneoen multzoa. Trukatzen, imitatzen edo ordeztzen zailak dira. Elementu multzo horren artean aipa genitzake:

-Jabetza industrialak: Hemen patente, aplikazio informatiko edo marken inguruko eskubideak sartzen dira, oro har, iraupen luzeko aktibo ukiezinak. Teknologiaren garrantzia azpimarratu beharra dago hemen. Aldaketa teknologiko arinak enpresak behartzen ditu berritasunak arintasun handiz sartzera, zaharkituak ez gelditzeko.

-Antolakuntza gaitasuna: Faktore aktiboen eta pasiboen konbinazioa helburu bat lortzeko, egitura jakin baten arabera betiere. Enpresaburuak definitzen dituen egitura eta faktore guztiak koordinatzen eta produkzioa zuzentzen laguntzen diona.

1.4 ENPRESA SISTEMA BEZALA.

Enpresaren teoria bat enpresaren funtzionamendua eta jokabidea ulertzeko eta azaltzeko balio duen jakite multzo bat da.


Sistemen Teoria berrogeita hamarreko hamarkadan sortu zen, diziplinarteko ikuspegi batekin, era askotako diziplinetan erabiliz, beraz, enpresaren ekonomian, besteak beste. Ikuspegi horretan, **enpresa sistematzat** hartzen da, eta hura *helburu bat erdiestera bideratuta dagoen elkarrekintza dinamikoan dagoen elementu multzo* gisa definitzen da.

Teoria horren arabera, sistema ororen ezaugarria azpizistemetan deskonposatzeko aukera da, elkarren artean lotuta eta goragoko sistemarekiko mendekotasunean. Azpisisistema bakoitza bereiz azter liteke eta sistema bat eratzen du bere baitan, eta azpisisistema gehiagotan zatigarria da, eta haiek, aldi berean, sistema gisa ere har litezke etab. Garrantzitsuena da, ordea, sistema eta azpisisistema guztiek elkarrekiko mendekotasun eta hierarkia harremanak dituztela, beraz, sistema bakar globaltzat har litezke.

Esate baterako, giza gorputza sistematzat har liteke, elementu multzo batek eratua (bihotza, giharrak, hezurak etab.), elkarrekintza dinamikoan eta helburu bat erdiestera bideratuak, kasu honetan bizitza. Gogoeta horretatik abiatuta, giza gorputzaren sistema azpisisistema apalagoetan deskonposa liteke: zirkulazio, gihar, nerbio, digestio sistemak, besteak beste. Azpisisistema horietako bakoitza, esate baterako, zirkulazioa, sistematzat har liteke bere baitan: elementuen multzoa (bihotza, arteriak, zainak etab.) elkarrekintza dinamikoan helburu bat erdiesteko

(odolaren zirkulazioa); eta, aldi berean, azpisistema bakunagoetan deskonposatu: bihotza, zainak, odola etab.

Enpresa, ikuspegi honetatik, sistema gisa azter liteke, eta, aldi berean, goi sistema ekonomiko baten azpisistema gisa. Enpresa, sistema gisa, **elementu edo input multzo** gisa definitzen da (ondasun ekonomikoak eta giza kapitala), **dinamikoki elkarrekiten dutenak helburu edo output bat erdiesteko**.



Lehen adierazi den bezala, sistema ororen ezaugarria da azpisistemetan banan daitekeela aldi berean. Eta haiek, aldi berean, sistema gisa ere jarduten dute. Enpresa sistematzat hartuta, hiru azpisistema nagusi bereizten dira: azpisistema fisikoa, azpisistema finantzarioa eta zuzendaritza azpisistema.

1.4.1 Azpisistema fisikoa.

Azpisistema honetatik jario fisikoek edo errealek zirkulatzen dute, hau da, lehengaien, produktu erdilanduen eta produktu bukatuen jarioak, bezeroei etab. saltzen zaizkienak. Aldi berean, bi azpisistema edo *area funtzionalak* zatitzen da: produkzioa eta marketina. Produkzio azpisistema edo *area funtzionalak* premia batzuk asetzeko ondasun eta zerbitzuak lortzen laguntzen duten jarduera multzoa biltzen du, produkzio faktore batzuetatik abiatuta.

Faktore horiek (lehengaiak, osagaiak, ekipoak, energia, langileak etab.), enpresak erosi eta kontratatu behar dituenak, biltegiratu, mantendu edo prestatu egin behar dira ondasun eta zerbitzuetan eraldatzeko prozesatu edo aplikatu aurretik. Jarduera multzo horrek *hornitze* funtzioa du, eta, oro har, produkzio *area funtzionalean* sartzen da.

Adibidea: Altzari produkzioan lan egiten duen enpresa batean mota guztietako zurak, iltzeak, torlojuak, margoak, kolak, bernizak etab. erosten dituzte. Prozesu produktiboaren ondoren ondasunak lortzen dira (armairuak, aulkiak edo mahaiak), salmentarako prest.

Bestalde, *marketin* azpisistema edo *area funtzionala* enpresak egiten dituen jarduera multzoa da bezeroen beharrak eta nahiak asetzen dituzten ondasunak eta zerbitzuak merkatuan trukatu ahal izateko.

Jarduera multzo horrek bezeroen beharren eta nahien azterketa barne hartzen du, haiek aseko dituzten produktuen diseinua, prezio egokia finkatzea, produktuen banaketa (saltokietan, posta bidez, etxez etxe etab.) eta haien sustapena edo bezeroei egiten zaien jakinarazpena.

1.4.2 Azpisistema finantzarioa.

Hartatik zirkulatzen dute jario finantzarioek, hau da, enpresa jarduera burutu ahal izateko beharrezkoak diren baliabide finantzarioek, enpresek erosten dituzten makinak, altzariak, ordenagailuak, lehengaiak etab. ordaindu behar baitituzte, langileen soldadak, lokalaren alokairua, energia hornitzea eta beste hainbat baliabide beharrezko beren jarduera egiteko.

Azpisistema honek aurrezkia inbertsio bihurtzen du, eta hura kapital produktibo bilakatzen da. Batetik, finantziazio azpisistema edo *area funtzionalak* osatzen du, baliabide finantzarioak eskuratzeaz arduratzen dena, eta bestetik, inbertsio azpisistema edo *area funtzionalak*, aipatu baliabide finantzarioei erabilera ematen diena, inbertsio produktiboetan gauzatzeko.

Adibidea: SAGU TRIPONTZIA, etxabereentzat elikagaiak produzitu eta merkaturatzen dituen enpresa da, bereziki karraskarientzat. Gaur egun, **Ratus norvegicus** delakoaren elikadurarako produktu berri bat prestatzen ari da, etxe askotan boladan dagoen karraskaria. Produktua egiteko, beharrezkoa da era askotako gastuei aurre egitea. Makinek 2.000.000 tx.u.-ko kostua dute. Haietatik, 600.000 tx.u. enpresaren jarduerak sortutako etekinetatik lortuko dira. Gainerako kopurua, 1.400.000 tx.u, Caja Navarraren mailegu bati esker lortuko da, urteko %7,5eko interesarekin, 5 urttean itzuli beharrekoa.

Martxan jartzeko, produktuak salgai egon arte, 2.000.000 tx.u.-ko gastu gehigarria aurreikusten da, gaien erosketatik eta langileen soldatetatik eratorritakoa. Produktua ezagutzera emateko, publizitate kanpaina egingo da prentsa iragarkiekin eta irrati printzekin, 1.200.000 tx.u.-ko kostu gehigarriarekin. Caja Madrid-en mailegu batekin finantzatzeko da, zenbateko berarekin, urteko %7,5eko interesarekin, urtebetean itzuli beharrekoa.

1.4.3 Zuzendaritza azpisistema.

Azpisistema honetatik informazio jarioek zirkulatzen dute, zuzendaritzari berezkoak zaizkion erabakiak hartzeko prozesua bideratzen duen lehengaia. Funtzionalki lau azpisistemek integratzen dute: planifikazioa, antolakuntza, zuzendaritza eta kontrola.


Enpresak, oro har hartuta, ezin du egoki funtzionatu, esate baterako, azpisistema finantzarioak edo marketin azpisistemak ez badute funtzionatzen.

Izan ere, edozein azpisistema horien funtzionamendu eskasak zalantzan jar dezake enpresaren izate bera. Kalitate handiko ondasunak sortu eta pertsona oso prestatuak dituzten enpresa batzuk desagertu egin dira erabaki desegokiak hartu zituztelako marketin edo finantziazio arloetan. Beste batzuk desagertu egin dira helburu okerrak edo batere errealistak ez zirenak markatu zituztelako, edota beren jardueraren emaitzak behar bezala kontrolatu ez zituztelako.

Dimentsio batetik hasita, edozein enpresaren jardueraren konplexutasuna, eta hura integratzen duten azpisistema bakoitzarenak, ondorioz, agerian jartzen du *enpresak eskura dituen baliabideak* modu zuzenean *antolatuko dituen zuzendaritza* baten beharra duela.

Hori dela eta, zuzendaritza azpisistemak garrantzi berezia du, bestelako azpisistemen gain jarduten duelako haien koordinazioa bere gain hartuz. Horretarako, honako funtzio hauek egiten ditu:

- Planifikazioa, hau da, enpresak bilatzen dituen *helburuak* definitzea eta helburu horiek erdiesteko beharrezko *planak* egitea.
- Giza baliabideen eta gaien antolakuntza egitea, helburuak lortzearren.
- Zuzendaritza, pertsona bakoitzak bere *erantzukizuna* betetzen duela lortzea, alegia.
- Kontrola, hau da, lortutako emaitzak ezarritako helburuekin konparatzea eta, dagokion kasuan, egokiak diren erabaki zuzentzaileak hartzea.

ENPRESA SISTEMA ETA BERE AZPISISTEMAK**1.5 ENPRESAREN HELBURUAK.**

Normalean, enpresaren zuzendaritzak denbora tarte berean lortu nahi diren era askotako helburuei egin behar die aurre: batzuk enpresaren sistemari dagozkio eta beste batzuek, azpisistema bakoitzari. Guztiak antolatu, hierarkizatu, bateragarri egin eta aldi berean aztertu eta azpihelburu bakoitzean banakatu beharko dira, ahalik eta modu egokienean lortu ahal izateko.

- Enpresak bere izatearen funtsa diren xedeak edo helburuak ditu. Helburu horiek merkatu ekonomian ahalik eta etekin handiena ateratzeari lotu izan ohi zaizkio tradizioz. Gaur egun, ingurune ekonomikoaren eta enpresa beraren konplexutasuna handitu denez gero, helburu sorta askoz ere zabalagoak ezarri ohi dira, besteak beste, enpresaren hazkundera, merkatu kuotaren hazkundera, ondasun eta zerbitzuen produkzioan kalitatea hobetzea etab.
- Enpresak, azkenaldian, erantzukizun zentzu berria hartu du berarekin harremana duten taldeekiko, lehenago ez zuena, hain zuzen ere. Enpresek harremanak dituzten talde horiek hiru bloke handitan biltzen dira:

- a. Enpresaren talde osagarriak. Akziodunak, zuzendariak eta langileak.
- b. Ingurune hurbileko edo espezifikoko taldea, enpresarekin hornitzaile, bezero, lehiakide etab. gisa zuzenean harremana duten erakundeak edo organismoak.
- c. Ingurune sozial edo orokorreko taldea. Besteak beste, enpresak bere jarduera egiten duen estatua eta erkidego geografikoa azpimarra genitzake.

Enpresak ahalegindu behar du eta lortu behar du oreka mantentzen berak bilatzen dituen helburuen eta berarekin harreman zuzena edo zeharkakoa duten taldeen artean. Modu errazean esan izan da enpresaren helburuak haren zati edo kide diren pertsonen edo taldeen helburuak direla. Helburuen ordenamendua talde bakoitzak enpresaren barruan duen botere mailaren arabera izango da.

1.5.1 Zuzendariaren helburuak.

1. Jarraitutasun helburua, zuzendariari segurtatzen diena enpresaren botere guneetan iraungo dutela. Helburu horrek esan nahi du zuzendariak erabakitze boterea lortzen ahaleginduko direla enpresan, bai eta erabakiak hartzeko orduan kontrol eta eragin handiagoa erabiltzeko boterea ere.
2. Beste helburuetako bat beren ordainketa ekonomikoak handitzea da, bai eta maila profestionalean ospe handiagoa lortzea ere.

1.5.2 Jabeen helburuak.

Jabeak inbertitzaile pribatuak dira, beren dirua enpresari ematen diotena eta beraz, urtero ahalik eta etekin kopuru handiena lortzea espero dute, baina ez hori bakarrik, litekeena delako beren inbertsioaren balioa handitu nahi izatea, etorkizunean enpresa saltzeko asmoa badute behintzat.

Bi dira, oro har, jabeen helburuak:

1. Inbertsioaren errentagarritasuna
2. Enpresaren balioa handitzea.

1.5.3 Langileen helburuak.

Langileen eragina enpresaren helburuak ezartzeko orduan, erabakien sozializazio prozesu logikoaren eta produkzio bitartekoen barruan kokatzen da. Enpresak langileenganako egiten duen irekitze prozesu hori astiro garatuz eta landuz joan da denboran zehar. Hala ere, langileen helburuak, oinarrian, bi ildoan inguruan biltzen dira:

1. Lansari eta lan baldintzak hobetzea. Ardatza: Lansariak handitzea, segurtasuna eta higieena lanean.
2. Partaidetza handiagoa enpresak erabakiak hartzeko orduan.

Kontuan izan behar dugu enpresako giza taldeak helburuak bilatzeko orduan interes gatazka sor daitekeela langileen eta zuzendarien edo jabeen artean, edo langileen eta bien artean.

1.6 ENPRESAREN ERANTZUKIZUN SOZIALA

Enpresaren erantzukizun sozialaren kontzeptuak adierazten du enpresak kontuan hartu behar dituela, ondorio ekonomikoez gainera, bere erabakiek eta jarduerak izan litzaketen ondorio sozialak.

Azkenaldian, **gizartearen presioa handitzen ari da enpresen gain, arreta handiagoa eskain diezaieten auzi sozial eta ingurumenekoei**, eta beren jokabideetan jarrera etikoagoak izan ditzaten.

Merkatu ekonomiaren sistemak enpresaburu partikularra bultzatzen du bere produkzio koste pribatuak minimizatu ditzan, ahalik eta lehiakorrena izan dadin. Horrek esan nahi du, zenbait kasutan, komunitateari lekualdatzen zaiola produkzioaren kostuaren zati bat, kostu sozialak izenekoak, haiek pertsonalki beren gain hartu ordez.

Kostu sozialak hirugarrenak jasaten dituzten galerak dira, enpresaren jardueren emaitzaren ondorioz.

Kostu sozial nagusiak dira, besteak beste:

- Uraren eta airearen kutsadura.
- Oreka ekologikoa aldatzea.
- Ordezkarriak ez diren baliabideak agortzea.
- Lan gaixotasunak.
- Langabezia.

Herrialde garatuenetan, **gobernuak legeriak sartzen ari dira kostu sozial horiek arindu ahal izateko**, baina normalean legeek ezin dituzte alderdi guztiak estali eta berandu samar egiten dira, konpondu nahi dituzten arazoen hedapenari dagokionez.

Horregatik, mugimendu sozialek enpresei eskatzen diete, askotan, eragiten dituzten gizarte eta ingurumen arazoei aurka egiteko, nahiz eta horrek ondorioz ekarri gutxitu egiten dela epe laburrean etekina lortzeko duten ahalmena.

Kezka gai nagusiek ondorengo alorrekin lukete zerikusia:

- Egoera ekonomikoa. Langabezia maila handia eta krisialdi ekonomikoa dagoen garaietan, gizarteak enpresei eskatzen diete aberastasuna eta enplegua sortzeko gai izan daitezen, eta presio sozial handiak egiten dira lantokien ixteak eta langileen kaleratzeak saihesteko.
- Pertsonengana bideratutako enpresa kudeaketa. Langilea motibatzea lan egokia egin dezan, bere gaitasunen eta nahien arabera, eta enpresarekin zerikusia duten erabakiak hartzeko aukera eskaintzea.
- Ekologia eta ingurumenaren babesa. Kutsadura, ingurune naturalaren kutsadura gisa definituta, egungo arazo ekologiko nagusia da. Enpresek ingurumena hondatzen duten hondakinak eta isurketak tratatzeko teknika berri eta garestiak erabiltzeko beharra planteatzen da.
- Kontsumitzaileen babesa. Kontsumitzaileen elkarteek kontsumitzaileak begirune handiagoarekin tratatzeko eskatzen dute, haien eskubideak errespetatu eta informazio gehiago eskaintzea.

Enpresaren ekonomia

-Berritu ezin daitezkeen baliabideak agortzeak dakarren kezka. Hirurogeita hamarreko energiaren krisiak gizartea ohartarazi zuen urriak ziren baliabide natural jakin batzuen kontrolik gabeko erabileraz. Harrezkero kontzientziazio prozesu bat gertatu da, eta erabilera eraginkorragoa eta kontserbazio politikak lantzea eskatu da.

Enpresa askok erantzukizun sozialeko planteamenduak hartu dituzte beren gain enpresa filosofiaren oinarritzko alderdietako bat bezala, batez ere irudi korporatibo mailan.

Hala ere, jarduera zehatzen mailan, enpresak ez dira horren irekiak gai hauek eztabaidatzeko orduan, kostuak dakartzalako batik bat, kontuan hartu gabe, epe luzera, beren biziraupena horren mende egon daitekeela.